

## Hasi berri da Erakundeen Nazioartekotzeari buruzko Unibertsitate Masterra Bilbon.

2015/10/29

Aste honetan hasi berri da Bilbao Berrikuntza Faktorian (Bilbo), aurrez-aurreko modalitatean. Guztira 18 hilabete iraungo du (12 hilabeteko ikaskuntza eta beste 6 atzerrian), ingelesez eta gaztelaniaz emango da eta 90 kreditu izango ditu. Eskola-egutegia betetzen den bitartean, ikasle guztiak txandaka arituko dira ikasten eta ingurune nazioarteko enpresa batean praktikak egiten; aurrez-aurreko prestakuntza amaitzen denean, enpresa horren bitartez sei hileko egonaldia egingo dute atzerriko merkataritza- edo produkzio-filial batean.

Masterraren bidez, ikasleek zuzen-zuzenean ezagutuko dute erakundeen nazioartekotzea eta kultura-egokitzapena.

Ikasleak jasoko duen prestakuntzak bi oinarri bereizle izango ditu: alde batetik, lana eta ikasketak txandaka eta sei hileko egonaldia atzerrian; bestetik, eginez ikastea oinarri duen metodologia bat, proiektu errealean gainean lan eginez, Unibertsitatearen filosofiarekin bat.

Zehazki, prestakuntza-programa 2015eko urrian hasi eta 2017ko martxoan amaituko da. 2015eko urritik 2016ko martxora bitartean, txandakako praktikak egin ahal izango dituzte enpresetan, baina ez dira ezinbestekoak izango. Praktika horri esker, ikasleak lan-esperientzia hartu ahal izango du nazioarteko enpresa batean. Horrela, atzerrira joan baino lehen sakon ezagutuko du egonaldia egiteko egokitu zaion enpresa. Prestakuntzak bi zati ditu. Lehen modulua 2015eko urritik 2016ko martxora emango da, eta honako gai hauek jorratuko ditu: globalizazioa testuinguruan jartzea, enpresa baten nazioartekotze-ahalmenaren diagnostikoa, kokapena aukeratzea eta, azkenik, nazioarteko enpresa baten kudeaketa globalaren gakoak. Bigarren modulua 2016ko martxotik uztaileira iraungo du; horretan, egokitzapen geografikoan sakondu eta zentratuko da prestakuntza; hala, munduko hainbat lurralderekin lotutako edukiak landuko dira sakonki: Europa, Asia, Pazifikoa, Hegoamerika, ABE, Kanada eta Mexiko, Magreb eta Arabiar Herrialdeak eta Afrika. Behin kontzeptuak barneraturik eta hainbat kokagune dituen enpresa bateko esperientziarekin konbinaturik, 2016ko irailtik 2017ko otsailera bitartean ikasleek egonaldia egingo dute enpresa horren nazioarteko merkataritza- edo produkzio-filial batean, ikasitako guztia praktikan jartzeko aukera izan dezaten. Horrela amaituko dute Masterra.

Beren lehen eguneko argazki batzuk ikusi ditzakegu.

